



Esp. kodea: 2017KSAN0004
Titularra: KULTURA ETA EUSKARA
BATZORDEA

Gaia: Santamasak 2017; onartzea irabazteko asmorik gabeko ARRASATEKO erakunde, elkarte eta taldeek txistorra, talo eta edarien salmenta postuak jartzea aginduko dituzten arauak.
Hasiera data: 2017/10/17

ARAUAK

HELBURUA

Araun helburua da baldintzak finkatzea 2017ko Santamas egunean, abenduaren 22an izango duguna, jartzeko gehienez ere 6 salmenta postu. Saltokiak hauek jarri ahal izango dituzte: irabazteko asmorik gabeko Arrasateko erakunde, elkarte eta taldeek txistorra, talo eta edarien saltzeko. Funtzionatzeko ordutegia izango da 9:00-15:00 artekoa.

POSTUEN KOKALEKUA

Hauek dira 6 salmenta tokien kokalekuak:

- Olarte kalea, bi toki
- Seber Altube plaza, toki bat
- Arbolapeta toki bat
- Garibai Etorbidea bi toki

SALBUESPENAK

Araubide honetatik kanpo geratuko dira, jai egitarauari loturik daudelako, Herriko plazan kokatu ohi diren bi talo postuak.

ESKABIDEAK

Interesdunek eskaera inprimakia aurkeztu beharko dute BAZen azaroaren 24a baino lehen. Erakunde, elkarte edo talde bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

SALTOKIAK ESLEITZEKO ZOZKETA

Zozketa egingo da baimenduko diren saltokiak zehazteko, aurkeztutako eskaera kopurua baimendutako saltoki kopurua baino handiagoa bada. Saltokien kokalekua finkatzeko ere zozketa egingo da

Zozketa izango da 2017ko azaroaren 30ean

PREZIOA

Lurzoru publikoaren erabilera doakoa izango da

SALTOKIAK MUNTATZEA

Saltokiak muntatzea erakunde, elkarte edo talde bakoitzaren ardura da. Interesatuei lagatzeko Udalak ez du material nahikorik eta egokirik saltokien muntaketa egin ahal izateko.

BAIMENDUTAKOEN BETEBEHARRAK

Aukeratutakoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Aurkeztea erantzukizun zibileko arriskuari aurre egiteko aseguru poliza kontratu izanaren egiaztatzea, gutxieneko estaldura izango da 150.000 eurokoa.
- Euskararen erabilera: saltokian jarriko dituzten karteletako testua eta produktuen izena euskaraz egongo dira, edo, bestela, euskaraz eta gaztelaniaz



Esp. kodea: 2017KSAN0004
Titularra: KULTURA ETA EUSKARA
BATZORDEA

Gaia: Santamasak 2017; onartzea irabazteko asmorik gabeko ARRASATEKO erakunde, elkarte eta taldeek txistorra, talo eta edarien salmenta postuak jartzea aginduko dituzten arauak.
Hasiera data: 2017/10/17

- Uneoro betetzea osasanari buruz indarrean dagoen legeria, bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak defendatzeko legeria ere.
- Bakarrik txistorra (ogiarekin edo taloarekin) eta edariak saldu ahal izango dira (inoiz ere ez konbinatuak edo graduazio altuko alkoholik)

HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen kudeaketa egokia egiteko Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko irailaren 29an onartutako arauak bete beharko dira:

1.- Edukiontzia.

- a. Edukiontzia Mankomunitateak jarriko ditu, Udalak zehaztuko du kokalekua.
- b. Salmenta postuko arduradunak eramango ditu hondakinak gertuen gelditzen diren edukiontzietara
- c. Beira, salmenta postuetako arduradunek kudeatu behar dute.

2.- A)HONDAKINAK

Hondakinak ez dira jatorrian nahastuko:

- Hondakin organikoa
- Ontzi arinak
- Beira (salmenta postuetako arduradunek eramango dute igluetara)
- Papera
- Errefusa
- Olio (salmenta postuetako arduradunek kudeatuko du). Debeztatuta dago olio isurtzea estolderia sarera.

B)ONTZIAK, BAXERA eta EDALONTZIAK

Edalontziak berrerabilgarriak izan behar dira

- Baxera berrerabilgarria izan behar da
- Janaria ekartzeko ontzi eta kazuelak Janaria - kanpotik badator berrerabili daitezkeen ontzietan izan behar da eta ontzi eta eltzeak berrerabilgarriak izan behar dira.

SALTOKIAREN EZAUGARRIAK

- Saltokiaren ezaugarri teknikoak: Saltokiek sendotasun eta segurtasun neurriak bete beharko dituzte erabiltzaileei kalterik ez eragiteko bestekoak. Gainera, klimatologiari (haizea, euria) eusteko babesa izan beharko du.

LEGEA BETETZEA

Abenduaren 23ko 10/2015 legeak jasota dagoena bete beharko da ikuskizun publiko eta jolas jardueri dagokionean. Baita 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa. 18 urtez azpikoei debekatuta dago alkohola saltzea. Edariak zerbitzatzen postuen barruan lanean diharduten guztiek 18 urte edo gehiago izan beharko dituzte, edo gutxienez adin



Esp. kodea: 2017KSAN0004
Titularra: KULTURA ETA EUSKARA
BATZORDEA

Gaia: Santamasak 2017; onartzea irabazteko asmorik gabeko ARRASATEKO erakunde, elkarte eta taldeek txistorra, talo eta edarien salmenta postuak jartzea aginduko dituzten arauak.
Hasiera data: 2017/10/17

hori daukan pertsona baten ardurapean jardun. Agintari eskudunak, edozein unetan, postuetako barren atzean dagoen edonori NANA eskatu ahal izango dio goian aipatutakoa betetzen ari ote diren egiaztatzeko.

- Ez betetzeak: Arau hauek ez betetzeak bidea emango die antolatzaileei saltokia jartzeko baimena kentzeko eta ekarriko dio 2018ko ferian parte hartu ezina.

POSTUEN KOKATZEA:

- Saltokia 2017ko abenduaren 22ko goizeko 08:00etatik –09:30etara instalatuko da eta 10:00etan hasiko da salmenta, 15:00etan salmenta amaituko da. Hortik (15:00etatik) aurrera, saltokikoa kentzen hasiko da.

GOMENDIOAK:

- Saltokian izango direnei gomendatzen zaie bertako jantzi tipikoak janztea.

ARAUAK ONARTZEA

- Saltokirako eskabidea aurkezteak honako ARAU HAUEK GUZTIAK onartzea dakar.

Arrasate, 2017ko urriaren 17a
TEKNIKARIA
Jon Garai Uriarte